

Opus Deiren berri Suitzan

Toni Zweifel-en beatifikazio
prozesua aurrera doa,
testigantza ugarik xehetasun
asko eman baitituzte iadanik

2005 Eka 2

Toni Zweifel, 1938-ko otsailak 15-ean
Verona-n jaioa, enpresaburu suizar
baten semea zen. Ingenieri karrera
Zürich-eko Eskola Teknikoan (ETH)
ikasi eta gero, sendi enpresan urte
gutxi batzuk eman zituen. Handik
ETH-ra berriro bueltatu zen
Termodinamika Institutoko

patentetan lan egitera. Baina ez zen izan hau bere behin behineko lantegia. Urte batzuk geroago, 1972-an, garapen-bidean dauden herrien pobreziaren jakitun, LIMMAT fundazioa (www.limmat.org) sortu zuen beste pertsonen laguntzarekin. Zürich-en kokatutako fundazioak, Toni-ren 17 urtetako zuzendaritzapean, ehundaka proiektu bultzatu zituen munduan zehar. Batik bat, helburuak hirugarren munduko sendi eta emakumeen promozioan, medikuntza garapenetan eta gazteen formazio programetan gauzatu ziren.

Bestalde, 1962-an Toni Opus Deiko kide bihurtu zen, bere ikasle garaietan San Josemariak sortutako instituzioa ezagutu eta gero. Bokazio hau leialtasun eta gorputz eta arima haundiz bizi izan zuen. Bere lan bizi eta emankorrak lagun hurkoei begira egin zituen beti. Guzti hau umore eta

apaltasunez betetako bizimodu
batean.

Minbizia, bere bizitzaren
osotasunean agertua, Jainkoaren
borondate bezala onartu zuen, eta
ondorioz, gaixo egoera bere lanbide
gisa ezarri zuen. Testigantza ugarik
egoera honetako eta bere bizitzako
beste momentuen xehetasun asko
eman dituzte iadanik bere
beatifikazio prozesurako. Seguraski –
nork daki– urte gutxi barru,
ingenieri honen beatifikazioa
gauzatzekotan, bere kanonizazioaren
lehengo pausoak emango dira.

Zürich, 2005ko ekaina